

GAIZKI ERRANKA

Jende arraroa



SANTI LEONÉ

Polemika ekarri du Rammstein-en kanta –"Deutschland"– berriaren bideoak. Edo, hobeki erranda, kanta berriaren bideoaren iragarkiak piztu du kalapita. 35 segundoz, taldeko lau kide ageri dira kontzentrazio esparruko uniforme jantzita, urka-bilurra lepoan, exekutatzeko agindua noiz ailegatuko. Melodia malenkoniatsu bat bertzerik ez da aditzen. CSUko politikari batek Dachau bisitatzera gonbidatu du taldea; gobernu federaleko antisemitismo auzietarako arduradunak "askatasun artistikoaren gustu txarreko erabilera" egotzi dio taldeari. Apalago, bertze zenbaitek azpimarratu dute Holokaustoa ez litzatekeela erabili behar amu komertzial gisa.

Hori, amu hutsa, bertzerik ez baitzen iragarkia: bideoa argitaratutakoan, martxoaren 28an, argi gelditu da kontzentrazio zelaikoa pasarte bat bertzerik ez dela Alemaniako historiako zulo beltzei emandako errepaso luze batean. Errepaso posmoderno, zinemako irudien galbahetik pasatua eta Rammsteineko kideen irudimenetik ateratako izugarrikeriekin zamatua. Inork ez du, halere, balizko nazismozaletasunaren arrastorik aurkitu.

Rammstein taldekideak 60ko hamarkadan sortu ziren –1971n, gazteena–, Ekialdeko Alemanian. Halere, bazekiten juduen uniforme jantzte hutsa –bertzelako keinurik egin gabe, biktimei inolako burlarik egin gabe– probokazioa izanzen zela, eta horrek jarraitzaileen jakin-mina piztuko zuela. Hain zuzen ere, erabilera makur hori leporatu diete. Halere, prentsa –*FAZ*, *Der Spiegel*, *Die Zeit*– gauza izan da taldearen asmoa kritikatzeko eta bideoan ikusten dena aztertu eta baloratzeko. Bada identitatearen auziaren gaineko ikuspegi ironikoa txalotu duenik, "identitateen inguruko politikak gogortzen ari diren garai honetan". Inork ez du debekatzea eskatu. Inor ez da kartzelara joan.

Jendea arraroa da Espainiatik kanpo. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



ADUR

"GUZTION ESKUBIDEAK ETA KAZETARION LANERAKO ESKUBIDEA DAUDE JOKOAN"

MIKEL SAENZ DE BURUAGA, HALA BEDI IRRATIKO KAZETARIA

Ertzaintzak kazetaria Mozal Legeaz zigortu ostean, Hala Bedi "informatzeko eskubideari eginiko eraso" eraman du auzitegietara. "Epaituko direnak Ertzaintzaren eta Eusko Jaurlaritzaren gezurrak dira. Jokoan dagoena ez da gure kasua, ezta isuna bera ere; guztion eskubideak eta kazetarion lanerako eskubidea baizik. Mozal Legearekin, denok gara errudun kontrakoa frogatu arte". **ARGIA.EUS (2019/04/02)**

